



2

ikastunitatea

ZER NAHI DUZU?



## Aurkibidea

<b>1. Irakaslearentzako oharrak</b>	<b>2.or</b>
<b>2. Bezeroarekin hizketan</b>	
Zer nahi duzu?	3-4.or
<b>3. Dendetako gauzak</b>	
Elikagaiak	5-6.or
<b>4. Finkatuz</b>	
A. Zer? Zenbat?	7.or
B. Kopuruak	8.or
<b>5. Dendariaren txokoa</b>	
Eskaintzak	9.or
<b>6. Eranskinak</b>	
6.1. Transkripzioak	10-11.or

## 1. Irakaslearentzako oharrak

Dendariak bezeroari saltzeko garaian erabiltzen duen modu zuzenean oinarrituta dago ikastunitate hau: alegia, bezeroak zer nahi duen eta produktu horretaz zenbat nahi duen.

- **Bezeroarekin hizketan.** Dendariak bezeroari nahi duenaz galdetzerakoan sortutako elkarrizketa aztertuko da. Supermerkatu batean kokatzen da egoera eta ondoko eginkizunak bete behar dira: bertako sailak bereizi, bezeroek erosten dituzten produktuak ezagutu, txartelak kokatu, irudiak eta izenak lotu...
- **Dendetako gauzak.** Janari-dendetako produktuen irudiak ikusi ondoren, izen horiekin gurutzegramak osatu behar dituzte ikasleek. Irudi berberak erabiliz, produktuak sailkatuko dituzte, taldeka.
- **Finkatuz.** Bezeroei nahi duten produktuez eta kantitateaz galdetzeko moduak ikusiko dituzte, elkarrizketetik ateratako hainbat erantzuni galdera egokia formulatuz, eta baita elkarrizketak osatuz ere. Bestalde, janari-dendetako produktuak erostean erabiltzen diren ohiko kopuruak eta esaldietan izan behar duten ordena ezagutuko dituzte. Azkenik, otar baten zozketarako produktuen zerrenda osatuko dute, bakoitzetik zein kopuru jarriko duten idatziz.
- **Dendariaren txokoa.** Janari-dendetan topatu ohi ditugun eskaintza-txartelak aztertu ondoren, produktu batzuentzako txartelak osatu beharko dira.

## 2. Bezeroarekin hizketan

### ZER NAHI DUZU?

50'

#### Helburuak:

- Supermerkatuko atalak azaltzen dituen kartelak irudian kokatzea.
- Produktuak dagokien sailetan kokatzea.
- Janarien izenak irudiekin lotzea.
- Entzundako elkarrizketako lekuak identifikatzea.
- Entzundako kopuruak izenekin lotzea.

#### Zertan den:

- Supermerkatuko bateko irudian sailak bereizteko txartelak kokatu ondoren, erosketak gurdietan sailkatu behar dira eta irudietako produktuak izenekin lotu. Ikasleek jakin behar dute elkarrizketak non gertatzen diren esaten, baita idatziz dituzten zatiak zein lekutan gertatu diren identifikatzen ere. Azkenik, entzundako kopuruei izena jarriko diete.

### PROZEDURA

#### Atazaurrea

- Atazan landu behar den hiztegia azaltzeko aitzakian, ikasleek liburuko irudian 4 errotulu (bezeroak dauden tokietako errotuluak) kokatuko dituzte, zenbakia idatziz. **(2')**
- Supermerkatuko bezeroen erosketak gurdietan banatu behar dituzte ikasleek, erositako lekuaren arabera. **(8')**
- Produktu horien guztien irudiak dagokien izenarekin lotuko dituzte. **(5')**

Zuzenketa-orria			
OKINDEGIAN	ARRANDEGIAN	HARATEGIAN	FRUTATEGIAN
2	4	1	3
OKINDEGIA	ARRANDEGIA	HARATEGIA	FRUTATEGIA
Madalenak ogia	Sardinak Txitxarroak	Oilaskoa Txerri-solomoa	Porruak Tipulak Azenarioak Sagarrak Laranjak Perrexila

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13
L	E	k	M	J	F	H	A	B	I	G	C	D

#### Ataza

- Supermerkatuko elkarrizketak **(CDaren 5. pista)** entzun ondoren, bakoitza non gertatzen den adierazi beharko dute ikasleek, zerrrendako izenen ondoan elkarrizketaren zenbakia idatziz. **(10')**
- Liburuko elkarrizketa-zatiak irakurrita, non gertatzen diren markatuko dute taulan. **(5')**
- Bezeroek erosi dituzten produktuak eta kopuruak liburuko koadroetan ageri dira. Ikasleak produktu bakoitza dagokion kopuruarekin lotzen saiatuko dira. Logika erabiltzeko eskatuko diezu, ez baitituzte kopuru guztiak gogoratuko. **(10')**

## Feedbacka

- Ikasleek berriro entzungo dute elkarrizketa, egin dutena egiaztatzeko. (10')

### Zuzenketa-orria

1	FRUTATEGIA
2	ARRANDEGIA
3	HARATEGIA
4	OKINDEGIA

Frutategia	Arrandegia	Harategia	Okindegia	Elkarrizketa zatiak
x				Besterik? Bai, kilo bat sagar.
	x			Besterik? Ez eskerrik asko.
		x		Besterik? Bai, txuleta, zer moduzkoa da?
	x			Fresko-freskoak gainera, zenbat jarriko dizut? Kilo bat, mesedez.
			x	Kaixo, zer nahi duzu? Ogi bat eta dozena bat madalena.
	x			Zer jarriko dizut? Ez dakit... Sardinarik ba al duzu?
x				Zer nahi duzu? Porruak, mesedez.
		x		Zer nahi duzu? Baserriko oilasko bat jarriko al didazu, mesedez?

### FRUTATEGIAN

sorta bat	porru
lau	tipula
kilo erdi bat	azenario
kilo bat	sagar
bi kilo	laranja

### ARRANDEGIAN

kilo bat	sardina
txitxarro	bat
pixka bat	perrexil

### HARATEGIAN

kilo eta erdi	solomo
bi	txuleta

### OKINDEGIAN

dozena bat	madalena
ogi	bat

## Atazaostea

- Eskatu ikasleei liburuko kopuruak hitzez esateko, *ale*, *kilo* eta *dozena* hitzak erabiliz. (5')

### Zuzenketa-orria

500 g	kilo erdi bat
1.000 g	kilo bat
2.000 g	bi kilo
4	lau ale
1.500 g	kilo eta erdi
12	dozena bat

### 3. Dendetako gauzak

ELIKAGAIAK

85'

**Helburuak:**

- Janari dendetako produktuen izenak ezagutzea.
- Janarien izenak dagokien sailetan kokatzea.

**Zertan den:**

- Janari-dendetako produktuen irudiak ikusita, bertan dauden izenekin gurutzegramak osatuko dituzte ikasleek. Ondoren, irudi guztiekin lan egingo dute, produktu bakoitza dagokion sailean kokatzeko.

**PROZEDURA**

**1**

**Ataza**

- Ikaslearen liburuko elikagaiak 5 ataletan sailkatuta daude: A) arrainak; B) itsasoko eta ibaiko animaliak; C) fruituak eta frutak; D) lekaleak eta barazkiak; E) haragiak eta hestebeteak. Ikasleek 5 talde osatuko dituzte, eta irakasleak esango die zein atalekin lan egingo duten. Taulako zenbakiaren ondoan produktuaren izena idatzi beharra dago euskaraz eta gaztelaniaz. **(30')**

**Feedbacka**

- Talde bakoitzak egindako lana ikaskideei aurkeztuko die, ados dauden ala ez esan dezaten. **(20')**

Zuzenketa-orria				
A	B	C	D	E
1. zapoa	1. muskuilua	1. Gaztaina	1. babarrunak	1. solomoa
2. txitxarroa	2. itsas trikua	2. Intxaurra	2. babak	2. azpizuna
3. bisigua	3. aingira	3. Irasagarra	3. dilistak	3. txuleta
4. antxoa	4. almeja	4. Sagarra	4. garbantzuak	4. odolkia
5. sardina	5. maskorra	5. Laranja	5. ilarrak	5. urdaia
6. legatza	6. angulak	6. Limoia	6. lekak	6. urdaiazpikoa
7. amuarraina	7. lapa	7. Banana	7. kalabaza	7. txistorra
8. meroa	8. txirla	8. Pikua	8. kalabazina	8. tripakiak
9. izokina	9. itsas aingira	9. Arana	9. errefaua	9. txorizoa
10. krabarroka	10. karrakela	10. Gerezia	10. arbia	10. saltxitxak
11. oilarra	11. berberetxoa	11. Mertzika	11. tomatea	11. arkumea
12. erreboiloa	12. ostra	12. Abrikota	12. erremolatxa	12. oilaskoa
13. bakailaoa	13. karramarroa	13. Udarea	13. azenarioa	13. txerria
14. lupia	14. izkira	14. Hurra	14. aza	14. txahala
15. atuna	15. ganba	15. Oiliba	15. Brusela aza	15. untxia
16. barbarina	16. txangurrua	16. Mahatsa	16. luzokerra	
17. ezpata-arraina	17. abakandoa	17. Marrubia	17. azalorea	
18. hegaluzea	18. lanpernak	18. Mizpira	18. orburua	
	19. otarrainxka	19. Kiwia	19. porrua	
	20. olagarroa		20. zainzuria	
	21. otarraina		21. zerbak	
	22. txipiroia		22. letxuga	
	23. txibia		23. brokolia	
			24. ziazerbak	
			25. alberjinia	
			26. pipermina	
			27. eskarola	
			28. piperra	
			29. patata	
			30. endibia	
			31. apioa	

			32. onddoa 33. perrexila 34. perretxikoa 35. baratxuria 36. tipula	
--	--	--	--	--

## 2

### Ataza

- Hurrengo eginkizuna txapelketa modukoa da eta izenak irudiekin lotzean datza. Lehenik, aurreko atazako 111 izenak eta irudiak moztu behar dira; jarraian, ikastaldea bitan banatuta dagoela, talde bakoitzari izenen erdiak (atal bakoitzaren erdia) emango zaizkio. Taldeen betebeharra izenak bost ataletan antolatzea da. **(15')**
- Ondoren, berdin jokatuko dugu irudiekin: moztu eta gero, banatu egingo zaizkie erdi bana, irudi bakoitza dagokion izenaren ondoan jar dezaten. **(15')**

### Feedbacka

- Batean zein bestean, irabazlea lehenago eta zuzenago bukatzen duena izango da; beraz, zerrenda guztiak arretaz begiratu beharko dira. **(5')**

## 4. Finkatuz

Ikasleei ikastunitatean zehar landu diren hainbat egituratan arreta jarraraztea da atal honen helburua. Ezinbestekoa da, beraz, ikasleek jakitea hemen proposatzen diren jarduerak euren kasa egiteko modukoak direla eta, era berean, ariketak egiteko erreferentzia ikasgelan egindako lanean bilatu behar dutela. Dena den, irakaslearen laguntza derrigorrezkoa izango da, sortu dakizkiekeen zalantzei erantzun egokia emateko.

### A. ZER? ZENBAT?

45'

#### Helburuak:

- Bezeroari zer eta zenbat nahi duen galdetzeko ereduak ezagutzea.
- Dendariak zer nahi duen jakiteko bezeroari egin beharreko galdera egokiak erabiltzea.
- Aurretik ikusitako erduei jarraituz, elkarrizketako hutsuneak betetzea.

#### Zertan den:

- Bezeroei nahi duten produktuez eta kantitateaz galdetzeko moduak ikusiko dituzte Ikasleek. Ondoren, elkarrizketetatik ateratako hainbat erantzuni galdera egokia formulatzen saiatuko dira. Eta, azkenik, elkarrizketetan antzeko galderak egin beharko dituzte hutsuneak betetzeko.

### PROZEDURA

#### Ataza

- Bezeroei nahi duten produktuez eta kantitateez galdetzeko erabil daitezkeen hainbat forma daude irakaslearen liburuan. Irakurri ondoren, taulako erantzunei galderak egokitu behar zaizkie. Ariketa honetan garrantzitsua da *zer* eta *zenbat* bereiztea; beraz, bi horietako edozein erabili ahal izango dute *nahi*, *behar*, *jarri...* aditzekin. **(10')**
- Ikaslea liburuko hiru elkarrizketak osatzen saiatuko da, ikastunitatean entzundako elkarrizketa-motak gogora ekarriz. **(20')**

### Helburuak:

- Janariak erostean erabiltzen diren ohiko kopuruak ezagutzea.
- Irudietako produktuen kopuruak adieraztea.

### Zertan den:

- Janari dendetako produktuak erostean erabiltzen diren ohiko kopuruak ezagutuko dituzte ikasleek, baita elementuen ordena egokia ere. Gainera, zozketarako produktuen zerrenda osatuko dute, bakoitzetik zein kopuru jarriko duten idatziz.

### PROZEDURA

#### Ataza

- Ikasleak, kopuruen ordena nola osatzen den ikusteaz gain, pisua adierazteko unitate erabilienak izango ditu irakurgai. **(15')**
- Zozketarako produktuen zerrenda osatu behar du, irudietako jakiak erabiliz: alegia, produktu bakoitzetik zein kopuru jarri. **(15')**

## 5. Dendariaren txokoa

Dendara egokitzeko eredu baliagarriak aurkituko ditu ikasleak atal honetan. Jarduera horiek nork bere kaxa egitekoak badira ere, egokitzapenak egitean topatuko ditu ikasleak eragozpen gehien. Ikasleari eredu egokiak aukeratzen laguntzea izango da irakaslearen lana.

### ESKAINTZAK

50'

#### Helburuak:

- Janari dendetako eskaintza-txartelen ezaugarriak ezagutzea.
- Euskaraz dauden eskaintza-txartelak gaztelaniaz ematea.
- Hainbat produktu jakinei eskaintza-txartelak osatzea.

#### Zertan den:

- Janari dendetan topatu ohi ditugun eskaintza-txartelak aztertu ondoren, ikasleek euskarazko hainbat adibideren gaztelaniazko ordainak sortu beharko dituzte, baita produktu batzuen txartelak osatu ere.

### PROZEDURA

#### Ataza

- Ikasleak janari dendetako txartelak egiteko aholku batzuk jasoko ditu: hitz gakoak; produktuaren izenak; nongo, nolako edo noizko produktua den... **(15')**
- Ezaugarri horiek dituzten txartelak irakurtzeaz gain, bakoitzaren gaztelaniazko ordaina emango du. **(15')**
- Irudietako produktuen txartelak egiten saiatuko da, orain arte ikusitako ezaugarriak erabiliz. **(20')**

## 6. Eranskinak

### 6.1. Transkripzioak



CDaren 5. pista

Iraupena: 00:02:30

#### 1. ELKARRIZKETA

BEZEROA	Egun on!
DENDARIA	Baita zuri ere! Zer nahi duzu?
BEZEROA	Porruak, mesedez.
DENDARIA	Zenbat? Sorta bat?
BEZEROA	Bai, sorta bat jarri.
DENDARIA	Besterik?
BEZEROA	Bai, tipulak eta azenarioak.
DENDARIA	Zenbat tipula?
BEZEROA	Lau ale.
DENDARIA	Eta azenarioak?
BEZEROA	Kilo erdi bat.
DENDARIA	Besterik?
BEZEROA	Bai, kilo bat sagar, eta laranjak... bi kilo.
DENDARIA	Besterik?
BEZEROA	Ez, besterik ez.

#### 2. ELKARRIZKETA

DENDARIA	Hurrengoa?
BEZEROA	Ni naiz.
DENDARIA	Kaixo!
BEZEROA	Egun on!
DENDARIA	Zer nahi duzu?
BEZEROA	Baserriko oilasko bat jarriko al didazu mesedez?
DENDARIA	Ez zait gelditzen, denak saldu ditut.
BEZEROA	Tira, ba, orduan, solomoa eramango dut
DENDARIA	Solomo freskoa ala ondua?
BEZEROA	Freskoa.
DENDARIA	Zenbat nahi duzu?
BEZEROA	Kilo eta erdi.
DENDARIA	Horrelaxe. Besterik?
BEZEROA	Bai, txuleta zer moduzkoa duzu?
DENDARIA	Oso ona eta samurra.
BEZEROA	Orduan, pare bat txuleta jarri.
DENDARIA	Parrillan egiteko nahi al duzu?
BEZEROA	Bai, lodiak moztu, mesedez.
DENDARIA	Hementxe duzu. Besterik?
BEZEROA	Ez, besterik ez.

### 3. ELKARRIZKETA

DENDARIA	Kaixo, zer nahi duzu?
BEZEROA	Ogi bat eta dozena bat madalena.
DENDARIA	Madalena integralak ala normalak?
BEZEROA	Integralak, mesedez.
DENDARIA	Besterik?
BEZEROA	Ez, eskerrik asko.

### 4. ELKARRIZKETA

DENDARIA	Zein da orain?
BEZEROA	Ni naiz.
DENDARIA	Arratsalde on!
BEZEROA	Kaixo!
DENDARIA	Zer jarriko dizut?
BEZEROA	Ez dakit... Sardinarik ba al duzu?
DENDARIA	Bai, fresko-freskoak gainera. Zenbat jarriko dizut?
BEZEROA	Kilo bat, mesedez.
DENDARIA	Ongi da, besterik?
BEZEROA	Bai, txitxarro handi bat.
DENDARIA	Hauxe?
BEZEROA	Bai, horixe bera.
DENDARIA	Besterik?
BEZEROA	Ez, besterik ez.
DENDARIA	Perrexilik nahi al duzu?
BEZEROA	Bai, pixka bat jarri. Eskerrik asko.